



**AGINDUA, EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA
INGURUMENENKO SAILBURUARENA, HONAKO HAU ONARTZEN DUENA:
2030ERAKO EAE-KO HONDAKINAK PREBENITZEKO ETA KUDEATZEKO
PLANA: “HONDAKINAK BALIABIDE BIHURTZEN”.**

3/1979 Lege Organikoak, abenduaren 18koak, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuari buruzkoak, 11.1. artikuluan dio Euskal Autonomia Erkidegoari dagokiola ingurumenaren eta ekologiaren arloan Estatuko oinarrizko legeria garatzeko eta betearazteko eskumena.

Otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak (Euskal Herriko ingurugiroa babestekoak) 77. artikuluan honako hau ezartzen du: *“Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoari dagokio hondakin arriskutsuentzat eta beste zenbait hondakin-motarentzat plan arteztaileak egitea, eta plan horietako jarraibideak bete beharko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan garatzen diren produkzio eta kudeaketa publiko zein pribatuko jarduerak”.*

Aldi berean, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 12.4. artikulua ezartzen duenez, autonomia-erkidegoei dagokie hondakinak prebenitzeko programak nahiz hondakinak kudeatzeko plan autonomikoak egitea.

EAEn oraintsu arte indarrean izan den Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko Planari esker, hondakin arriskutsuen, hondakin ez-arriskutsuen, eraikuntza- eta eraispent-hondakinen eta udal-hondakinen prebentzioan, kudeaketan eta tratamenduan aurrera egin ahal izan da EAEn.

Kontuan hartuta hondakinen gaineko esparru berria, zeinak lotura baitauka Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 30eko 2018/852 Zuzentarauaren bidez onartutako Hondakinen Esparru Zuzentarauaren aldaketarekin eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren data bereko 2018/852 Zuzentarauaren bidez egindako ontziei eta ontzi-hondakinei buruzko Zuzentarauaren aldaketarekin, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 5eko 2019/904 Zuzentaruarekin, plastikozko zenbait produktuk ingurumenean duten eraginaren murrizketa hizpide, bai eta hondakinen zenbatespenaren gaineko erabakiekin eta Europa- nahiz estatu-mailan hondakinen arloan onartutako beste agiri batzuekin ere, beharrezkoa da erkidego-mailan hondakinak planifikatzeko beste tresna bat idaztea. Tresna hori, zehazki, honako hau da: 2030erako EAeko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko Plana (HPKP 2030): “Hondakinak baliabide bihurtzen”.

Halaber, hondakinak prebenitzeko programa txertatu zaio plan honi, uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 15. artikuluan eta 2018/851 Zuzentarauaren 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Donostia kalea, 1 – Tel. 945 01 98 41 – Faxa 945 01 98 56 – 01010 Vitoria-Gasteiz



Planteamendu berria, gainera, Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako 2030eko Estrategian kokatzen da (Gobernu Kontseiluak 2020ko urtarrilaren 7an onetsi zuen), baina baita Europaren Itun Berdearen (Green Deal) printzipioetan eta, zehazki, EBren Ekonomia Zirkularrerako Ekintza Plan berrian ere. Bada, aurreko plangintzaren esparruan 2015etik egindako lana hartu da oinarritzat, zeina ekonomia zirkularraren diseinuan eta ekoizpenean zentratzen den, erabilitako baliabideak EBko ekonomian ahalik eta denbora gehien egon daitezzen bermatzeko xedez, bigarren mailako kalitatezko material eta produktuen ekoizpenaren bidez eta arau, ekonomia eta merkatuko mekanismoen bidez, horiei lehentasuna emateko lehengaien eta horien arabera sortutako produktuen aldean.

Hondakinak planifikatu eta kudeatzeko tresna berri bat eginarazi diguten arauzko eskakizunen ondorio ez ezik, hondakinetatik eratorritako bigarren mailako material eta produktuen inguruan sortzen den merkatuan oinarrituriko aukera-tresna ere bada 2030erako EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plan hau.

2030erako EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak helburu handizaleak baina lor daitezkeenak proposatzen ditu. Hala ere, plangintza honek jasotzen dituen helburuak lortzea ezinezkoa izango da tartean diren pertsona eta eragile guztien lankidetzarik eta erantzunkidetasunik gabe; izan ere, administrazio publikoek lankidetzan jarraitu behar dute, plan hau gobernatzen duten printzipioekin konprometituta, baita eragile ekonomiko eta sozialek eta herritarrek ere, horiek funtsezko zutabeak izango baitira aurreikusten diren ekintzak garatzeko.

Testuinguru horretan, 2030erako EAEko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko Plan hau Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen eta 2018/851 Zuzentarauaren ezarpen-esparruaren barruan sartuta dauden hondakin guztiei ezar dakieke, eta, zehatzago, euskal lurraldean sortzen direnei edo, autonomia-erkidegotik kanpo sortu arren, EAEn kokatutako enpresen bidez kudeatzen direnei.

Honako hauek dira plan honen xede diren hondakinak:

- Hondakin arriskutsuak (HA): besteak beste, PCB/PCT, gailu elektriko eta elektronikoen hondakin batzuk (GEEH), erabilitako pila eta baterien hondakinak, erabilitako olioak, hondakin arriskutsuen ontziak, etxeko hondakin arriskutsuak (EHA), erabiltzen ez diren ibilgailuak (EDI).
- Hondakin ez-arriskutsuak (HEA): arriskutsuak ez diren hondakin industrialak, hiriko hondakin-uren araztegi-tako lohiak, erabiltzen ez diren pneumatikoak, erabiltzen ez diren ibilgailuak (zatiketaren osteko frakzio arinari dagokionean)¹.
- Erakuntza eta enpresen hondakinak (EEH)².

¹ Frakzio horietatik batzuk ibilgailuak dira, hala ere, Hondakinak (HA).

² Betiere, berrerabiltzera bidaltzen ez badira.

- Udal-hondakinak (UH): etxeko hondakinak³, saltokietako⁴ hondakinak eta antzekoak. Nabarmendu egin behar da biohondakinak xehe aztertzen direla; hots, lorategi eta parkeetako hondakin biodegradagarriak, etxeetatik, bulegoetatik, jatetxeetatik, jantokietatik, sukaldaritza kolektiboko zerbitzuetatik eta txikizkako establezimenduetatik ateratako elikagai⁵- eta sukalde-hondakinak eta elikagaiak prozesatzeko instalazioetatik datozen antzeko hondakinak. Halaber, azterketa xehea egin behar zaie ontzien eta ontzi-hondakinen korronteari edota itsas ingurunera jariatzen diren zaborrei.

Europako Batzordeak hondakinen inguruko planak egiteko gida metodologikoak oinarritzko lau printzipio identifikatzen ditu, eta plan honetan jarraitu egingo dira:

- Giza osasuna eta ingurumena babesteko ardura-printzipioa.
- Hondakinen kudeaketaren hierarkia-printzipioa.
- Kutsatzen duenak ordaintzeko eta ekoizleak erantzukizuna hartzeko printzipioa.
- Autosufizientzia-, hurbiltasun- eta unibertsaltasun-printzipioak.

Horiez gain, plan honek aintzat hartu ditu honako printzipio hauek, Hondakinen Esparru Zuzentzarautik eta 2018/851 Zuzentzarauaren bidez egindako aldaketetatik ondoriozta daitezkeenak:

- Bizi-zikloaren eta klima-aldaketa arintzearen printzipioa.
- Zirkulartasun-printzipioa.
- Eragile guztien erantzukizun partekatuko printzipioa.
- Gardentasunaren eta parte-hartzearen printzipioa.
- Jasangarritasunaren, merkatu berdea sustatzearen eta enplegua sortzearen printzipioa.
- Kudeaketa eraginkorraren printzipioa.

Plan honek berariaz identifikatzen du funtsezko zein printzipioen gainean oinarritu nahi dituen jorratu beharreko helburuak eta ekintzak.

Planteatzen diren xedeak espezifikoak, neurgarriak, lorgarriak, garrantzitsuak eta denbora-esparru zehazdunak dira.

- **Prebentzioa: 2030erako BPGd-unitate bakoitzak sortzen duen hondakin-tasa % 30 murriztea, 2016. urtearekin alderatuta, eta sortzen den hondakin-tasa osoa % 15 murriztea, 2010. urtearekin alderatuta.**
- **Gaitzako biketa: 2030ean hondakinen % 85 jatorrian bereiztea.**

³ Definizio hau Batzordearen 2011ko azaroaren 18ko Erabakiaren 1. artikulutik hartu da. Erabaki horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentzarauaren 11.2. artikuluan aurreikusten diren xedeak betetzen direla egiaztatzeko arauak eta itzulpen metodoak ezarri zituzten zuzentzaraua (2011/8165) (2011/753/EB). 22/2011 Legeak etxeko eta saltokietako hondakin-gisat definitzen diren horien baliokidea da.

⁴ Etxeetan sortzen diren hondakinak dira.

⁵ Elikagai-hondakinak: hondakin bihurtu diren elikagai guztiak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 178/2002 Erregelamenduaren (EE) 2. artikuluan zehazten den moduan (*).

- Balorizazioa: 2030erako hondakinen % 85 bigarren mailako baliabide bihurtzea, balorizazio energetikoa % 15 baino gutxiagora mugatuz.
- Deuseztapena murriztea: Hondakinak deuseztatzen diren operazioen bidezko kudeaketa sortutako hondakinen % 15era baino gutxiagora mugatzea 2030erako.

2025era begirako tarteko xedeak ezartzen dira, eta Planaren bilakaera aztertzeko eta, 2030erako xedeak ez betetzeko arriskua dagoela hautematen bada, Plana indartzeko urte giltzarria izango da hori.

Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko aurreko Planarekin lorturiko emaitzen azterketak plan berri honetan aurreikusten diren emaitzak lortu ahal izateko jarraitu behar den bidea zein den erakutsi digu: ezinbestekoa da finkaturiko xedeetan duten eragin zuzenarengatik edo gainerako jarduketarako duten palanka-efektuek nahitaez gauzatu behar diren jarduketak identifikatzea.

Hori dela-eta, aipatutako helburuak lortzeko funtsezko 10 jarduera zehaztu dira:

1. Inbertsio-plana eta ibilbide-orria zehaztea, isurketa gutxitzen eta zirkularitatea sustatzen duten lehentasuneko inbertsioei laguntzeko.
2. EAEko isurketaren autosufizientzia bermatzea 2030era arte. Aldi berean, isurketa gutxitu eta daudenak modu egokian ixtea.
3. Hondakinei buruzko legedia (lege-esparrua, erabilera berriak gaitzeko eta isuria debekatzeko dekretuak etab.) garatzea.
4. Hondakinen isurketa eta errausketarako eta agregatuaren erauzketarako zergak betearaztea.
5. HPKP 2030 ezartzeko administrazioaren baliabideak areagotzea.
6. Erdibideko biltegiarako instalazio publiko-pribatuaren irtenbide integrala ezartzea eta agregakinen, lurzoruen eta bigarren mailako bestelako lehengaien kalitatearen kontrola eta egokitzapena egitea.
7. Hondakin plastikoetarako eta hondakinok zaborte-gira ez desbideratzeko behin betiko konponbideei laguntzea.
8. Erosketa publiko eta pribatu berdea sustatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako 2030eko Programa berriaren bidez.
9. Ontzien berrerabilpena eta kalitate handiko birziklapena sustatzeko jarduerak egitea, SDDR sistemen ingurumen, gizarte eta ekonomiako analisia eginez, eta, hala badagokio, hedatuz.
10. Herritarren esku dagoen amiantoa kentzeko plana betearaztea (egiturazko zementu-zuntzaren bilketa eta kudeaketa), foru-aldundiekin eta Osalanekin batera.

Dokumentu hau ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren mende dago, eta, beraz, hura izapidetzean, dagokion ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera aurkeztu da.

Landutako dokumentua eztabaidatu eta onartzeko prozesuan parte hartuko dela bermatzeko, kontsultak egin zaizkie inplikaturako eragile guztiei, administrazio publikoei, erakundeei, enpresaburuen elkartei eta sindikatuak, bai eta erakunde ekologistek ere. Era berean, informazioa jendaurrean jartzeko aldi bat irekitzea erabaki da, herritar guztiek dokumentuaren edukia ezagutzeko aukera izan dezaten.



Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Batzordeak eta Ingurumeneko Aholku Batzordeak 2021eko maiatzaren 24ko bileretan aldeko txostena eman diote honako Plan honi: 2030erako Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana: “Hondakinak baliabide bihurtzen”.

2021eko urriaren 14an ebazpena eman zen, 2030erako EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren ingurumen-adierazpen estrategikoa formulatzeko. Ingurumen-azterketa estrategikoaren ondorio nagusiekin bat dator adierazpen hori, eta, horren arabera, behar bezala justifikatu da irismen-dokumentuan aurkeztu ziren ingurumen-irizpideen integrazioa.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuan esleitutako eskumenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehena.- Onartzea 2030erako EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Euskadiko Plana: “hondakinak baliabide bihurtzen”, hots, Agindu honen eranskin gisa agertzen dena.

Bigarrena.- Beharrezkoak diren neurri guztiak hartzea Planaren edukia zabaltzeko: 2030erako EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana: “Hondakinak baliabide bihurtzen”.

Hirugarrena.- Eusko Legebiltzarrari jakinaraztea onartu egin dela 2030erako EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana: “Hondakinak baliabide bihurtzen”.

Vitoria-Gasteiz, sinaduraren eguna.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,

MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI ANDREA
(Elektronikoki sinatua)